



Hondakinen gaikako bilketarako sistema berria martxan da

Nuevo sistema mediante contenedores para la recogida selectiva en Lezo



Jesus Mari Martiarena
Lezoko alkatea

Ikasturte berria, hainbat hobekuntzekin

Comenzamos el nuevo curso con novedades

Gogotsu eta indarrez ekin diogu ikasturte berriari Lezon. Udako egunak deskantsatzeko eta patxada hartzeko izaten badira ere, gogor aritu gara lanean, uda sasoiaren ere, iraila heltzerako guztia prest egon zedin: jaiak, hondakinak biltzeko sistema berria, Mugikortasunaren eta Kirolaren Europako Asteak, Gaxuxa Emakume taldearen lokalaren egokitzapena, Herri Eskolan egindako hobekuntza lanak...

Tartean izan ditugu, bai, zenbait arazo. Material faltak, adibidez, Gezalako aldagelen eta Herri Eskolako estaldura eraikitzeko lanen amaiera data atzeratu du.

Dena den, Gezalako lanak jada amaituak daude eta amaitzear dira Herri Eskolako jolastokikoak ere.

Udazkena, iraila bezain bizi eta polita datorkigu. Kultur ekintza mordoa izango dugu tartean eta kultur ekipamenduetarako lokalaren proiektua lantzen hasiak gara, kulturaren aldeko apustu irmoa egiten jarraitzen dugulako herritarrei aukera berriak eskaintzeko helburuarekin. Azkenik, Lezo-Donibane arteko bidegorria eraikitzeko lanak lehenbailehen has daitezzen ere lan egiten jarraituko dugu gogor bezain gogotsu.

Izan dadila beraz, udaberria eta udara bezain oparoa, baita udazkena ere.

Podemos decir que hemos comenzado el curso con fuerza y ganas en Lezo. Los días de verano suelen ser para descansar y parar un poco, pero en nuestro caso hemos seguido trabajando duro para que todo estuviera listo en septiembre: fiestas, nuevo sistema para la recogida selectiva de los residuos, Semana Europea de la Movilidad y el Deporte, los trabajos de mejora del local del grupo de mujeres Gaxuxa, las mejoras realizadas en la Herri Eskola...


También han surgido problemas por el camino, como por ejemplo, la falta de material que ha retrasado las obras de los vestuarios de Gezala y la cubierta de la Herri Eskola.

En cualquier caso, Gezala ya tiene nuevos vestuarios y los trabajos en el patio de la Herri Eskola están a punto de finalizar.


El otoño viene cargado de proyectos y actividades. Además de la variada agenda cultural, ya hemos comenzado a elaborar el proyecto de renovación del local para equipamiento cultural, porque seguimos apostando a favor de la cultura para ofrecer nuevas oportunidades de ocio a la ciudadanía. Y seguiremos trabajando duro, pero con ilusión, para que la construcción del Bidegorri entre Lezo-Donibane comience lo antes posible.

Que sea pues este otoño tan fructífero y productivo como lo ha sido la primavera y el verano.

Gaxuxa emakume taldearen egoitza berri da Renovado el local del grupo de mujeres Gaxuxa



GEZALAKO ALDAGELAK PREST



Lezo ya cuenta con nuevos camerinos en Gezala para que los grupos culturales que actúan en el auditorio tengan un espacio apropiado para cambiarse, relajarse y prepararse antes de su función

Eraikitze lanek atzerapena izan badute ere, dagoeneko amaituak daude Gezalako aldagelak. Aurrerantzean, beraz, bertan antzezten duten bertako zein kanpoko taldeek eremu egokiagoa izango dute lanerako.

Proiektu honen bitartez, Udalak, kultur taldeen beharrei erantzun nahi izan die, orain artean, espazio ezagatik, taldeek ez baitute aldatzeko eta materialik uzteko eremu egokirik izan.

Orain aldiz, kultur ekipamendu berri honekin, taldeen lan baldintzak hobetu dira eta eszenatokira igo aurretik, lasai egoteko eta kontzentratzeko eremua izango dute, ziur aski, gerora eskainiko dituzten emanaldi eta ikuskizunen mesedetan.

Udalerriko kultur jarduera sustatzearen eta indartzearen helburuaren baitan kokatu behar dugu proiektu hau, baina ez da proiektu bakarra, herriko arte eszenikoekin lotura duten taldeentzat kultur ekipamenduetarako lokala eskuratu baitu Udalak, beren behar eta eskariei erantzunez.


AMAITZEAR HERRI ESKOLAKO ESTALDURA ERAIKITZEKO LANAK

Hauetako ere atzerapena izan dute, baina hil honetan amaituko dituzte estaldura eraikitze lanak.

Ikasturtea jada hasia egonik, lanak aurrera eramaten ari den enpresak segurtasun neurri bereziak hartu ditu lanak amaitu bitartean bertako ikasle eta irakasleei eragozpenik ez eragiteko.

Aisialdi gune estali berriarekin, ikastetxeko haurrei eta oro har herritar guztiei aisialdirako aukera berriak eskainiko zaizkie, eskola orduetatik kanpo, baita larunbat, igande eta jai egunetan ere gaueko 21:30ak arte zabalik egongo delako jolastoki estali berria.

En breve finalizarán los trabajos para la construcción de la nueva cubierta del patio de la Herri Eskola, por lo que ya queda menos para que la ciudadanía lezoarra pueda disfrutar de este nuevo espacio cubierto que además podrá ser utilizado por todas y todos fuera del horario escolar, sábados, domingos y festivos incluidos hasta las 21:30 de la noche



EUSKARA IKASTEA DEBALDE

Lezoko Udaleko Euskara Sailak, euskararen ezagutza eta hobekuntza sustatzeko helburuarekin hainbat diru laguntza eskaini ditu gizarte esparru ezberdinetan euskararen erabilera indartzeko.

FORO ESCOLAR DE LA AGENDA 21



Las y los alumnos de los diferentes centros escolares se reunieron con representantes municipales en el Ayuntamiento para presentar las propuestas trabajadas en materia de movilidad sostenible, entre las cuales destacan: solucionar los puntos oscuros y las carencias de accesibilidad detectadas o incrementar la seguridad de las conexiones Lezo-Donibane.

HOBEKUNTZAK ARGITERIAN

Udalerriko argiteria publikoaren egoera hobetu eta energia kontsumoa murrizteko, Gorbea, Polentzarrene, Antonio Pildain eta Hipolito Gezala kaleetako argiteria berritu da, eraginkorragoak diren LED argiak jarritz.

FIESTA SCOOT EN LEZO

El grupo Muturreko Kirola organizó en colaboración al Ayuntamiento un festival para promover dicho deporte y dar a conocer sus diversos aspectos mediante diferentes actividades: talleres, exhibiciones, pista de slacine...

INDARKERIA SEXISTAREN AURKAKO PROTOKOLOAK

Udalbatzak indarkeria sexistaren aurrean esku-hartze integralerako bi protokolo onartu ditu. Bata, indarkeria matxista bizi duten emakumeen arreta hobetzeko eta bestea, Lezoko Udalean jazarpen sexista eta sexualari aurre egiteko.

MEJORAS EN LOS PARQUES INFANTILES DE ALTAMIRA Y DE LA PLAZA EUSKAL HERRIA

El Ayuntamiento ha vallado el parque de Altamira e instalado un paso de cebra en relieve al lado del parque para mejorar la seguridad de las y los niños y lograr que los vehículos disminuyan su velocidad. En el caso del parque infantil de la plaza Euskal Herria, éste ha sido renovado y mejorado totalmente, tal y como se está haciendo con la mayoría de parques del municipio.



AHALDUNTZE IKASTAROAK ESKAINIKO DITU UDALAK

Joan den urtean martxan jarritako ahalduntze ikastaroei jarraipena emate asmoz, Udaleko Berdintasun Sailak doako bi ahalduntze ikastaro antolatu ditu: Mindfulness ikastaroa eta Autodefensa feminista ikastaroa. Horiek aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso du Udalak eta asmoa da urtetik urtera horiek egonkortzea eta eskaintza urtero mantentzea.

MEJORAS EN LA HERRI ESKOLA Y EN LA PARADA DE AUTOBÚS DE LA AVDA. JAIZKIBEL

Con el objeto de mejorar las infraestructuras del municipio y responder a las necesidades y peticiones del centro escolar, se ha renovado parte de la fachada de la



Herri Eskola, por un lado, y se han pintado varias aulas, por otro. Y para mejorar la accesibilidad de las personas que hacen uso de la línea Lurraldebus, el Ayuntamiento ha reformado la parada de la avda. Jaizkibel para hacerla más segura, accesible y amable para las personas.

TIPI TOPA EGITASMOAK IKASTURTE BERRIARI EKIN DIO

Gabonak bitartean 13 irteera egingo dira. Lehen irteera irailaren 21ean egin zen eta azkena, abenduaren 21ean izango da. Edonork parte har dezake ekimenean, baina bereziki 60tik gorako herritarrei eta ariketa fisikorik egiten ez duten pertsonei dago zuzendua. Topaketa, betiko orduan eta betiko lekuan izan ohi da 10:45ean, ibilbide luzea egin behar dutenak, eta 11:00etan gainerakoak, Gurutze Santuaren plazan.

ILUMINACIÓN ESPECIAL EN LA TAMBORRADA



Este año por primera vez y con el objetivo de dar color y vida a la tamborrada que se celebra el primer día de los Santacruces, el Ayuntamiento ha colocado luces de colores para iluminar de forma especial la tamborrada de la noche. Esta novedad fue muy bien acogida por la multitud congregada en Gurutze Santuaren plaza, así como por la ciudadanía en general.

HOBKUNTZAK KIROLDEGIAN ETA IGERILEKUAN

Eskubaloia eta saskibaloia pista berriak da eta eskubaloia ate berriak ere ezarri dira. Urtea amaitu aurretik saskibaloia saskiak igo eta jaisteko sistema berriak da eta markagailu berria jarriko da.

Igerilekuan ere, urteroko garbiketa ta mantenu lanak egiteaz gain, hezetasun arazoei irtenbidea emateko isolamendua ezarri eta sabaia berriak da.



EL PROYECTO PARA EL LOCAL CULTURAL EN RESPUESTA A LAS NECESIDADES DE LOS GRUPOS

El Ayuntamiento se ha vuelto a reunir con los grupos culturales que se instalarán en el nuevo local para equipamiento cultural con el objeto de trabajar junto a ellos el proyecto de renovación del local para que éste se ajuste a sus necesidades y peticiones. El Ayuntamiento aún está elaborando el proyecto pero una vez esté finalizado comenzarán las obras.



Con este nuevo espacio el Ayuntamiento quiere satisfacer las necesidades y peticiones realizadas por los grupos y así ofrecerles un nuevo espacio de ensayo y almacenaje más adecuado.

KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUAREN BULEGOA KIROLDEGIAN

Bulegoaren kokapena aldatzeaz gain ordutegia zabaldu da herritarrei zerbitzu egokiagoa eskaintzeko helburuarekin. Gauzak horrela, lehen Aiton Bordan kokatua zegoen bulegoa, orain, kiroldegiko goiko solairuan ezarri da eta zerbitzua asteke egun guztietan eskainiko da jarraian azaldutako ordutegian: astelehenean, asteazkenean eta ostiralean 9:00-12:00 bitartean, asteartetan 16:00-19:00 bitartean eta ostegunetan 9:00-10:30 eta 16:00-17:30 bitartean.

HERRITARREN NAHIARI ERANTZUNEZ, HONDAKIN BILKETARAKO SISTEMA BERRIA LEZON

NUEVO SISTEMA PARA LA RECOGIDA SELECTIVA DE LOS RESIDUOS: MÁS CÓMODO, MÁS FÁCIL

Irailaren 19an estreinatu zen hondakin bilketarako sistema berria Lezon. Beraz, 5 edukiontzien bitartez biltzen dira jada hondakinak herrian. Horia ontzi arinentzat, urdina kartoi eta paperarentzat, berdea beirarentzat, marroia materia organikoarentzat eta grisa errefusarentzat. Azken bi edukiontzia zabaltzeko txartela beharrezkoa da sarraila elektronikoa dutelako bi edukiontzi horien erabilera kontrolatze aldera, edukiontzi marroira ez daitezen materia organikoak ez diren bestelako hondakinak bota.

Herritarrek EGUNERO atera al izango dituzte hondakinak herrian zehar banatuta dauden edozein edukiontzietara.

*Joka ezazu arduraz eta erantzukizunez
Actúa con responsabilidad,
di sí al reciclaje*

EGUNERO A DIARIO	EGUNERO A DIARIO	EGUNERO A DIARIO	EGUNERO A DIARIO	EGUNERO A DIARIO
				
BEIRA VIDRIO	PAPERA PAPEL	ONTZI ARINAK ENVASES LIGEROS	ORGANIKOA ÓRGÁNICO	ERREFUSA FRACCIÓN RESTO

Principal objetivo del cambio:

Facilitar la labor de reciclaje a la población para lograr mejorar los datos de recogida

El nuevo sistema mediante contenedores ha sido implantado en todo el municipio en respuesta a la demanda de la mayoría de la población que exigía un sistema más cómodo que se ajustara mejor a las necesidades y costumbres de todas y todos los lezoarras.

Por tanto, el principal objetivo del cambio ha sido facilitar la labor de reciclaje a la ciudadanía ya acostumbrada a separar adecuadamente los residuos mediante un sistema más cómodo, fácil, limpio, económicamente más sostenible e igual de eficaz o más que el PaP.

Con el nuevo sistema las y los lezoarras pueden depositar los residuos en los contenedores todos los días de la semana a cualquier hora del día y ello contribuirá a la mejora de los datos de recogida, tal y como ha ocurrido en los municipios donde se han implantado el sistema mediante contenedores.

Los contenedores amarillo, azul y verde están abiertos y por el contrario, para la apertura del contenedor marrón y gris es necesaria la tarjeta. En cualquier caso los residuos se pueden sacar a diario.

Guztion ardura da gaikako bilketa egokia egitea, gaikako bilketa tasak hobetzeko

Lograr mejorar los datos de recogida selectiva es responsabilidad de todas y todos



GAI BAKOITZA BERE EDUKIONTZIAN CADA FRACCIÓN EN SU CONTENEDOR

Edukiontzien erabilera egokia sustatzeko helburuarekin, "Gai bakoitza bere edukiontzian" informazio eta laguntza kanpaina abiarazi du Udalak. Honen baitan, besteak beste, Hondakinen Gida banatu da etxe guztietara herritarrek sistema berriari buruzko informazio guztia izan dezaten, webgunean sistema berriari buruzko informazio atala sortu da eta momentu honetan, hondakin bulegoan bi pertsona daude herritarren zalantzak argitzeko.

Sortzen ditugun hondakinak norberaren ardurara direla kontutan izanik, guztion ardurara da gaikako bilketa egokia egitea, gaikako bilketa emaitzak hobetzea lortzeko. Beraz, Udaletik sistema berriaren erabilera egokia egitea animatu dituzte herritarrek.

**Sailkatu
birziklatzeko**

erabili modu egokian
edukiontziak.

EGIN BIRZIKLAPENAREN ALDE

**Separa
parareciclar,**

haz un buen uso del sistema
mediante contenedores.

DI SÍ AL RECICLAJE

LANDA EREMUA ZONA RURAL

3 ekarpen gune egokitu dira landa eremuan. Sarraila elektronikoa dute eta beharrezkoa da txartela atea zabaltzeko. Landa eremuko bizilagunek Hondakin Bulegora joan behar dute txartela aktibatzen.

Se han habilitado 3 zonas de aportación en la zona rural. Tienen un cierre electrónico, por tanto, es necesaria la tarjeta para la apertura de la puerta. Las/los vecinos de la zona rural deben activar la tarjeta en la Oficina de Residuos del Ayuntamiento.

POLTSA KONPOSTAGARRIAK BOLSAS COMPOSTABLES

Edukiontzi marroira materia organikoa botatzeko nahitaez poltsa konpostagarriak erabili behar dira. Horiek doan jaso daitezke, udaletxeko Hondakin Bulegoan.

La materia orgánica debe ser depositada, obligatoriamente, en bolsas compostables en el contenedor marrón. Estas bolsas se pueden recoger gratuitamente en la Oficina de Residuos del Ayuntamiento.

EDOZEIN ZALANTZA ARGITZEKO PARA CUALQUIER DUDA O CONSULTA

HONDAKINEN GIDA GUÍA DE LOS RESIDUOS

HONDAKINEN BULEGOA OFICINA DE RESIDUOS

943 52 15 38 | hondakinak@lezo.eus



<http://www.lezo.eus/hondakinak/edukiontzi-bidezko-sistema> | <http://www.lezo.eus/es/sistema-mediante-contenedores>



Desde EAJ-PNV queremos hacer un llamamiento a toda la ciudadanía para que siga haciendo un buen uso del nuevo sistema de recogida. Todos los cambios requieren de un periodo de adaptación, pero está en manos de cada uno hacer bien las cosas y seguir separando los residuos debidamente para lograr mejorar los datos de recogida, tal y como ha ocurrido en otros municipios. Es cuestión de voluntad. Aldaketa orok eskatzen du egokitzapen epe bat. Ziur gaude, baina, poliki-poliki guztiok bat egingo dugula sistema berriarekin. Tarteka oraindik, nahita edo nahigabe utzitako poltsak agertzen dira edukiontzien alboan. Horregatik, herritarrei sistema berria ondo erabiltzeko eta hondakinak gaika modu egokian sailkatzen jarraitzeko eskatu nahi diegu, sistema berriak, gainera, erraztasunak ematen dizkielako herritarrei eta hondakinak egunero ateratzeko aukera eskaintzen duelako. Beraz, sistema aldatu arren, hondakinak gaika sailkatzen jarraitu behar dugu ingurugiroaren mesedetan, baina hori guztion artean eta guztion borondatearekin lortuko dugu, guztion borondatea baita giltzarri bakarra.



Aspaldian inbiri az begiratzeko diogu Euskal Herritik Catalunya. Iritsi zaizkigun irudiek, ilusio eta esperantzaz bete dizkigute bihotzak. Azken asteotan bizitakoek, zirrarak sortu dizkigute. Ilusioaz gain kezka eta haserreak ere izan dute lekua gurean ordea. Catalunya herri oso bat ikusi dugu, elkarturik, aho batez, beraien ahotsa entzun dezatela eskatuz. Herri baketsu bat, bozkatzeko, autodeterminatzeko eskubidea krabelinekin aldarrikatu duena polizia eta Guardia Zibilaren aurrean. Erantzuna? Euskal Herrian ondo ezagutzen duguna; jipoiak, tratu txarrak eta Gobernu espainolaren gorrotoa. Agerian geratu da, Franco bera hil bazen ere, ondo lotuak utzi zituela gauzak. 78ko errejimenak, behingoz kareta kendu du eta demokraziaz mozorroturiko errejimen batean bizi garelako agerian utzi du. Inbiri az begiratzeko diogu Catalunya hango agintarien papera ere eredu garria izaten ari delako. Tinko egin dute aurrera, errepresioaren gainetik (atxiloketak, mehatsuak...), herriari hitza emateko. Gure agintariak ordea, errejimenarekin lerokatu dira eta Catalunya herriari bizkarra eman diote. EAJko agintariak ez al dute ikusten Catalunya lortutakoak guri ere atek irekiko dizkigula, Euskal Herria independente bat lortzeko? Horren beldur al dira?



En septiembre se implantó por fin el 5º contenedor en Lezo. Constituía una de las demandas principales de los lezoarras y una de las promesas electorales del PSE-EE, razón por la cual hemos trabajado muy duro y en ocasiones en solitario para que los postes con los colgadores de la puerta a puerta desapareciesen de las calles. Un sistema, el puerta a puerta, que implantado por EHBILDU la pasada legislatura no sólo trajo controversia, mayores gastos y molestias, sino que ha privado a los lezoarras de disfrutar antes de un sistema más limpio, económico y al menos igual de eficaz en la consecución de las más altas tasas de reciclaje. A pesar de la pesada hipoteca dejada en material y personal a subrogar y su apuesta por el puerta a puerta sigue ahí, el PSE-EE entiende que comienza una nueva etapa en la que los lezoarras con la colaboración del Ayuntamiento deberán demostrar saber hacer un buen uso del nuevo sistema y contribuir a construir un municipio más sostenible y limpio.

LEZON MUITTU #BEACTIVE

Lehen aldiz Lezon Mugikortasunaren eta Kirolaren Europako Asteak ospatu dira. Udalak hainbat ekimen antolatu ditu herritarren artean mugikortasun jasangarria, ohitura osasuntsuak eta bizitza aktiboagoa sustatzeko.

Este año por primera vez se han celebrado la Semana Europea de la Movilidad y la Semana Europea del Deporte en Lezo con el objeto de promover entre la ciudadanía la movilidad sostenible, unos hábitos saludables y una vida más activa.

LEZON MUITTU #BEACTIVE MUGIKORTASUNAREN EUROPAKOASTEAK

EUROPAKO MUGIKORTASUNAREN ASTEA - EUROPAKO KIROL ASTEA
SEMANA DE LA MOVILIDAD EUROPEA - SEMANA EUROPEA DEL DEPORTE

<p>20 18:30</p> <p>NORDIC WALKING Bekoerrotak Kiroldegitik. Materiala bertan. Desde Bekoerrotak Kiroldegia. El material se repartirá allí.</p>	<p>21 10:45/11:00</p> <p>TIPI-TOPA Gurutze Santuaren plazan. Desde la Plaza Santo Cristo.</p>	<p>23 10:00</p> <p>MENDI BUELTA 90' Lezoko ibilbideak. Bekoerrotatik. Desde Bekoerrotak Kiroldegia.</p>	<p>26 09:30</p> <p>NORDIC WALKING Bekoerrotak Kiroldegitik. Materiala bertan. Desde Bekoerrotak Kiroldegia. El material se repartirá allí.</p>
<p>26 19:00</p> <p>TOTAL TRAINING Saldize Plaza. + 16</p>	<p>27 17:30</p> <p>ESGRIMA Saldize Plaza.</p>	<p>27 09:30</p> <p>NORDIC WALKING Bekoerrotak Kiroldegitik. Materiala bertan. Desde Bekoerrotak Kiroldegia. El material se repartirá allí.</p>	<p>28 18:00</p> <p>JUMPFIT Saldize Plaza. Lehenasuna +16 (denei irekia). En Saldize Plaza. Prioridad +16 (abierto a todos).</p>

JARDUERA GUZTIAK DOHAKOAK. Eraman beharrekoak: Arropa erosoa, gozatzeko gogoak eta irriparre zabala.
TODAS LAS ACTIVIDADES SON GRATUITAS. Sólo se necesita ropa cómoda, ganas de disfrutar y una gran sonrisa.



MENDI BUELTA GIDATUA

Mugikortasunaren eta Kirolaren Asteen ospakizuna aprobetxatuz Mendi buelta gidatua antolatu zuen Udalak Xoxolur Mendi Taldearen laguntzarekin Lezoko ibilbideak eta horien inguruko informazio panel eta seindeak ezagutzera emateko.

EZAGUTZEN AL DITUZU LEZOKO IBIIBIDEAK?

Lezok natura ondare aberatsa du eta Osasuna eta Kirola uztartuz, Lezoko Udalak herrian zehar 3 ibilbide egokitu zituen 2015. urtean herritarren artean ohitura osasuntsuak sustatzeko eta Lezoko ondare natural, historiko eta kulturala ezagutzera emateko.

Ibilbide horiek Joxe Mikel Garmendia eta Lander Zurutuzak idatzitako Lezoko ibilbide pedagogikoak liburuan daude oinarrituta eta egitasmoa aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuen Udalak, eta aurten ere, diru-laguntza jaso da, oraingoan, herri erdiguneko seinaleztapena ezartzeko.

Bekoerota kiroldegian dago ezarria abiapuntua, baina herriko puntu ezberdinetan kokatuta dauden paneletan ibilbideen inguruko informazioa aurki daiteke.

Ibilbideak ezagutu nahi?

El Ayuntamiento de Lezo adaptó tres trayectos que conforman Lezoko Ibilbideak con el objeto de promover hábitos saludables entre la ciudadanía y dar a conocer el patrimonio natural, histórico y cultural de Lezo. El Gobierno Vasco suvencionó la iniciativa y este año el Ayuntamiento ha vuelto ha contar con ayudas para señalar los recorridos desde el centro urbano de Lezo. El punto de partida se encuentra situado en la entrada del polideportivo Bekoerroeta, pero se pueden encontrar paneles informativos y señales sobre los recorridos en diversos puntos de Lezo.

¿Quieres conocer los recorridos de Lezo?

XOXOLURRA-ALARGUNTZA

Jaizkibeleko hegoaldeko magala zeharkatzen duen 11 km-ko mendiko ibilbidea da oinez egiteko diseinatua, bereziki mendian ibiltzea ohituta daudenentzat gomendatua. Ikuspegi panoramiko ederrak eta garrantzia kultural eta historiko handia duten elementuak ikusi daitezke, hala nola: Xoxolurra parkea, Iparragirre depositua, Torreazpi putzua edo Amezti baserria.

Este recorrido de montaña de 11 km transcurre por la cara sur de Jaizkibel. Es apto para su recorrido a pie, pero se recomienda a personas acostumbradas a recorridos de larga distancia. Se aprecian magníficas vistas panorámicas y elementos de gran interés cultural e histórico, como por ejemplo: el parque Xoxolurra, el depósito Iparragirre, la poza Torreazpi y el caserío Amezti.

OLAZAR- LORBIDE

Erdi mailako mendi-ibilbidea da, edonork oinez egiteko pentsatua. Ibilbidea Jaizkibelen hegoaldeetik doa eta baserri ederretako auzoak zeharkatzen ditu. Nabarmentzekoak, antzinako animalientzako bideen aztarnak eta Plataiturri iturria.

Es una ruta de montaña intermedia, apta para su recorrido a pie y recomendable para todo tipo de personas. Transcurre por la cara sur de Jaizkibel y cruza barrios de bellos caseríos. Destacan los restos de antiguos pasos para animales y otros elementos de interés como la fuente Plataiturri.

ALTAMIRA-BORDATXO

Asfaltatutako ibilbidea da, bizikletaz zein oinez egin daitekeena. Ibilbideak Altamira zeharkatzen du eta landa atlantikoko lursail tipikoetatik zehar murgiltzen da. Paseo atsegina eta gomendagarria da edonorentzat. Ibilbide honetan Darietazarra edota Miura baserriak ikus daitezke.

Es una ruta asfaltada apta para su recorrido a pie o en bicicleta. El recorrido se introduce en Altamira y cruza prados típicos de campiña atlántica donde se concentran los caseríos más importantes como Darietazarra o Miura. Es un agradable paseo recomendable para todo tipo de personas.

SALIDA MONTAÑERA

Aprovechando la celebración de la Semana Europea de la Movilidad y el Deporte el Ayuntamiento organizó una salida montañera para dar a conocer los recorridos de Lezo, así como la señalética y los paneles informativos de los mismos.

GIRO APARTA MENDI IRTEERAN

40 pertsona inguruk parte hartu zuten mendi buelta gidatuan. Bekoerrotako kiroldegitik abiatu ziren goizeko 10:00etan eta Xoxolurrako bidea hartu zuten mendizaleek. Bertan, geldialdia egin zuten eremua garbitzeko. Ordu eta erdi igaro ondoren, herrira itzuli ziren eta hamaiketako ona egin zuten partaide guztiek elkarrekin.

Alrededor de 40 personas participaron en la salida montañera organizada por el Ayuntamiento. Partieron desde el polideportivo Bekoerrotako dirección Xoxolurra. Aprovechando la salida, limpiaron también la zona de Xoxolurra y tras una vuelta de hora y media todas y todos los montañeros volvieron al centro del municipio para disfrutar del almuerzo.

MENDI IRTEERA IRUDITAN LA SALIDA MONTAÑERA EN IMÁGENES




UDAZKEN kulturala

URRIA



URRIAK 21,
12:30
Aiton
Bordatik

MUSIKA
KANTUJIRA



URRIAK 21,
16:30
Gezala
auditoriumean

HAUR ZINEMA EUSKARAZ
ZIKOINAK




URRIAK 21,
18:35
Gezala
auditoriumean

HAUR ZINEMA EUSKARAZ
PAPEREZKO
HEGAZKINAK



URRIAK 22,
20:00
Gezala
auditoriumean

KONTZERTUA
MADDI OIHENART
& SOKAHOTS ORKESTRA



URRIAK 25,
18:15
Udal
Liburutegian

LITERATUR SOLASALDIA
MUSKUILUAK AFALTZEKO
BIRGIT VANDERBEKE



URRIAK 29,
Herriko
kaleetan

GUINNESS WORLD RECORD-EN
1GO URTEURRENA OSPATZEKO
HAINBAT EKITALDI
MUXIKOAK

AZAROA




AZAROA 5,
20:00
Gezala
auditoriumean

ANTZERKIA
JOKOZ KANPO
Borobil Teatrot




AZAROA 8,
18:15
Udal
Liburutegian

IPUIN KONTAKETA
PANPINAK AITORRENTZAT
MAITE FRANKO



AZAROA 10,
17:00
Gezala
auditoriumean

TXOTXONGILO ANTZERKIA
INAUGURAZIOA
GUS MARIONETAS



AZAROA 11,
16:30
Gezala
auditoriumean

HAUR ZINEMA EUSKARAZ
PRINTZE
TXIKIA



AZAROA 15,
18:15
Udal
Liburutegian

IPUIN KONTAKETA
BASOKO IPUINAK
AMAIJA PUIN



AZAROA 18,
12:30
Aiton
Bordatik

MUSIKA
KANTUJIRA



AZAROA 18,
12:30
Gezala
auditoriumean

MUSIKA
STA. ZEZILIA
KONTZERTUA

ABENDUA




ABENDUAK 16,
12:30
Aiton
Bordatik

MUSIKA
KANTUJIRA



ABENDUAK 16,
18:30
Gezala
auditoriumean

MUSIKA
GABONETAKO
KONTZERTUA



ABENDUAK 17,
20:00
Gezala
auditoriumean

KONTZERTU IRUDIKATUA
ITZAL ZAUNKA 5€
JEXUKMAI LOPETEGI & NOIZBEHINKA




ABENDUAK 20,
18:30
Musika
Eskolan

MUSIKA
GABONETAKO
AUDIZIOA



ABENDUAK 21,
17:00
Gezala
auditoriumean

IPUIN MUSIKATUA
AGURE ZAHARRA-
REN OPARIA




ABENDUAK 22,
16:00
Gezala
auditoriumean

IPUIN KONTAKETA
ITOITZ
OLAJA INZARTE-AMAJA ELIZAGOIEN



ABENDUAK 22,
19:30
Gezala
auditoriumean

MUSIKA
KONTZERTU
KORALA



ABENDUAK 23,
16:30
Gezala
auditoriumean

HAUR ZINEMA EUSKARAZ
IPARRALDEKO
NORMAN



ABENDUAK 24,
12:00
Euskal Herria
Plazan

MUSIKA
HATOR-HATOR
KANTATZERA



ABENDUAK 24,
16:30
Kaleetan
zehar

MUSIKA KALEKIRA
AITON BORDAKO
ABESBATZA



ABENDUAK 31,
18:30
Kaleetan
zehar

MUSIKA KALEJIRA
URTE AMAIERAKO
KOPLA ZAHARRAK

urria, azaroa, abendua



... eta
horretaz gain
GABONETAN...

ERAKUSKETA

RAKETISTAK

azaroak 27tik
abendua 3ra

Kultura
aretoan



LIBURU ETA DISKA AZOKA

Gabonen
bueltan

Kultura
aretoan

AZOKA

FERIA

SANTOMAS EGUNAREN OSPAKIZUNA

Karlos
Saldise
plazan



SAN SILBESTRE HAUR KROSA


KROSA

DESKARGATU LEZO ESKURA JARRIKO DIZUM APP-A

DOAN deskarga daiteke
Android eta Apple bilatzaileetan
lezo hitza jarriz.

DESCARGATE LA APP QUE TE PONDRÁ LEZO A MANO

Se puede descargar GRATUITAMENTE
en los móviles de Android como Apple
poniendo en su buscador la palabra Lezo



@LezokoUdala

@LezoUdala